

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerak egiteko dirulaguntza-deialdiaren ebazpena onesteko erabakia

2020ko ekainaren 24an onetsi zuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerak egiteko dirulaguntzetarako deialdia.

2020ko abuztuaren 17an argitaratu ziren ALHAOn —92. zk— Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerak egiteko dirulaguntza-deialdiaren oinarriak eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak 2020ko ekainaren 24an hartutako erabakiaren laburpena, zeinen bitartez Vitoria-Gasteizko udalerriko hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerak egiteko dirulaguntza-deialdia egin baitzen.

2020ko irailaren 16an bukatu zelarik eskabideak aurkezteko epea, hauek izan ziren aurkeztu zirenak:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN KOSTUA, GUZTIRA
"Basalburu", Salburuko baso jangarrien elkarteak	1.057,00 euro
Kiribilore permakultura-elkarteak	2.975,00 euro
Ekoburuz kultur elkarteak	802,98 euro
Bio-Nekazaritza, Arabako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarteak	3.550,00 euro

Bio-Nekazaritza, Arabako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarteak bertan behera utzi zuen eskabidea, proiektuari aurre egin ezin zionez.

Eskatutako dirulaguntzei lehentasuna, baietza edo ezetza emateko ezarritako irizpideak aintzat harturik, egiaztatu da Basalburu Salburuko baso jangarrien elkarteak eta Ekoburuz kultur elkarteak gutxieneko puntuazioa lortu dutela (25 puntu), eta, horrenbestez, dirulaguntza eskura dezaketela. Kiribilore permakultura-elkarteak eskatzen zen gutxienekotik beherako puntuazioa lortu du, eta, beraz, ez dagokio dirulaguntzarik.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko ebaluazio-organoak honako ebazpen-proposamena egin du oinarrietan adierazitako esleipen irizpideei jarraituz:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA
"Basalburu", Salburuko baso jangarrien elkarteak	845,60 euro
Kiribilore permakultura-elkarteak	Ez dagokio dirulaguntzarik
Ekoburuz kultur elkarteak	642,38 euro
Bio-Nekazaritza, Arabako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarteak	Eskabidea bertan behera utzi du

Ikusirik Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren estatutuak —20016ko apirilaren 5eko ALHAO, 40. zk—, erabaki hau hartu zuen zuzendaritza-kontseiluak 2020ko azaroaren 17ko ohiko bilkuran:

Erabakia

Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerak egiteko dirulaguntza-deialdiari dagozkion zenbatekoak ordain daitezela onestea, Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuko 2020/0110.1722.471.07 partidaren kontura.

Iragarki ofiziala ALHAOn eta dirulaguntzen datu-base nazionalean argitaratzea.

Ebazpen honek agortu egiten du administrazio-bidea, eta, beroren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020 azaroaren 18an

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA